



# CRISTINA ÁLVAREZ

*Irrati-esataria*

Imajinatzen  
duzu Zorrotza  
merkataritzarik  
gabe?

Baduzu eskaintzarik  
onena Zorrotzatik  
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

# EROSI AUZOAN!

[www.comerciantes-zorrotza.com](http://www.comerciantes-zorrotza.com)



EMAN IZENA



# BERBALAGUN

Praktikatu Euskaraz Gurekin

*Erraza da*

✓ ZURE NEURRIRA ✓ HURBIL ✓ LAGUNARTEAN ✓ DOHAINIK ✓ ABANTAILAK

**Berba** 607 530 132   
praktikatu.eus/blog/bilbo  
berbalaguna@aek.eus



## DARABILBO

Tailerrak/bisita gidatuak/joskintza/  
kirol-ekintzak/sukaldaritza/  
ikuskizunak/lehiaketak...



BILBON AISIALDIA EUSKARAZ



**www.darabilbo.eus**  
darabilbo@gmail.com  
607 530 132



**ZORROTZ MORROTZ**  
Zorrotzako herri aldizkaria

87. alea. 2024ko maiatza

[www.zorrotzmorrotz.eus](http://www.zorrotzmorrotz.eus)

[zm@zorrotzmorrotz.eus](mailto:zm@zorrotzmorrotz.eus)

@ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

@zorrotzmorrotz

**Argitaratzen du:**  
**Zorrotzako Euskal Txokoa**

**Erredakzioa:**

Ibai Barrios  
Ainara García  
Igor Gutiérrez  
Aitor Marín  
Naroa Peña  
Iratze Pérez

**Laguntzaileak:**

Manu Cobo  
Asier Urkiza

**Koordinazioa:**

Naroa Peña

**Diseinua eta maketazioa:**

Aitor Marín. (amc diseinua)

**Zuzenketak:**

Iñigo Ramírez de la Piscina

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du. Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

sarrera

## FEVEren lurperatzea eta Saderren lekualdaketarako aurrerapausoak

**L**ehenik eta behin, jakinarazi nahi di-zuegu FEVE geltokia lurperatzeko proiekturako Ingurumen Inpaktuaren Azterlana onartu dela, eta bertan, gainera, aurkeztu genituen alegazioak jasotzen direla. Hemendik aurrera, eraikuntza-azterlana planteatzen hasteko urrats berria da hau. Hala ere, Udalak eta Ministerioak hitzarmen ekonomikoa eguneratu beharko dute, proiektuak aurrera egin dezan eta, azkenean, geltokia lurperatzeko behingoz.

Bestalde, auzoko Gizarte Mugimendua beste auzo eta gizarte-erakunde batzuekin batera lanean hasi da Sader-Profersa Zorrotzatik kanpo lekualdatzeari behin betiko bultzada emateko. Horretarako, hainbat bilera izan ditugu, eta joan den apirilaren 18an batzarra antolatatu zen Auzo Etxean, alde batetik, informazioa emateko eta, aldi berean, urratsak ematen hasteko. Batzar gehiago egingo ditugu Basur-tun, San Inazion, Deustun...

eta kaltetutako beste eremu batzuetan ere. Era berean, sinadura bilketa bana jarri dugu martxan (internet bidez [change.org](http://change.org), eta baita paperean ere bai). Udalak eta Eusko Jaurlaritzak neurgailuak jar ditzaten eskatzen ari gara, arnasten dugun airearen kalitatearen benetako datua ezagutzeko eta jasaten ari garen kutsadura-kota zein den jakiteko. Gainera, auzoan hondakin-garraioaren gaineko kontrola ere eskatzen dugu, bai eta enpresa horien kokalekutik gertu dauden eremuen garbiketa ere.

Kanpaina honetan guztion parte hartzea ezinbestekoa da. Adi egon eta egingo diren ekitaldietan parte hartu!

Azkenik, azpimarratu behar da hilero elkarretaratzeak egiten jarraitzen dugula osasun-zentroaren aurrean, Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak deituta. Parte hartzera animatzen zaituztegu, osasuna eta ongizate sanitarioa jokoan baitaude.



# ZORROTZA HERRIGINTZAN



**ZORROTZAKO BATZOKIA**

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63  
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)





# Plataforma berria sortu da Sader eta Profersaren lekualdatzea bizkortzeko



Argazkia: @saderprokanpora

Handik eta egun gutxira, istripu bat gertatu zen Profersan, eta jendartean harrabotsa eta kezka zabaldu zituen. Gertakari horren ostean plataformak manifestazio batera deitu zuen, “orain inoiz baino gehiago lantegiak Zorrotzatik kanpo” nahi dituelako

IGOR GUTIÉRREZ

Bilbo hiriguneko hainbat auzo elkarte eta eragile plataforma berri batean bildu dira, Sader eta Profersa enpresen lekualdatzea bizkortzeko asmoz. Zorrotzako Taldeen Koordinakundeak otsailean egin zuen deialdia sare sozialen bidez eta erantzun zabala jaso. Bilerara Zorrotzako bizilagun eta elkarteetako kideez gain, San Inazio, Deusto, Erribera edo Basurtuko jendea ere hurbildu zen.

Agaleus taldeko enpresek eragozpen eta kezka handiak sortzen dituzte gure auzoaz haratago. Izan ere, auzo desberdinetatik hainbat ekintza egiten ari dira jadanik: datuak arakatu, igorpenak neurtzeko gailuak erosi, epaitegietan salaketak jarri... Bada, egindako lana komunean jarri ondoren, batera joateko beharra ikusi zuten.

Koordinakundearen leloa eta irudia berreskuratuta, “Sader-Profersa kanpora!” plataformak bere lehen asanblada informatiboa antolatu zuen apirilaren 18an, Auzo Etxean. Hitzaldi gela leporaino bete zen, eta jende asko kanpoan geratu behar izan zen.

Bertan, enpresei buruzko datu esanguratsu bezain kezagarriak eman ondoren, parte hartzerako deia zabaldu zuten. Era berean,




change.org plataformaren bidezko sinadura bilketa abiatu zuten, astebetean 1500 sinaduratik gora lortu zuena. Zehazki, Eusko Jaurlaritzari zuzenduta dago, eta besteak beste, zera eskatzen zaio: Sader eta Profersari Ingurumen Baimen Bateratua oraingo kokalekuan ez berriztea, eta Bilboko Udalarekin zein Agaleus taldearekin elkarlanean aritzeko, enpresentzako kokaleku egoki bat bilatzeko, hirigunetik kanpo, langileen eskubideak babestuta.

Hurrengo asteetan, asanblada informatiboa Bilboko beste auzo batzuetan errepikatzeko asmoa dute. Eta plataformak lehenengo pausoak ematen zituen bitartean, apirilaren 26an istripu bat gertatu zen Profersan, erreakzio kimiko baten ondorioz, jendartean harrabotsa eta kezka handia zabaldu zituen. Horren ondorioz, *Sader Profersa kanporak* deituta, ehundaka pertsona manifestazio jendetsuan atera ziren maiatzaren 2an kalera Zorrotzan, justu ale honen itxieran.

## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK ZORROTZAN

# EAJ berriro garaile, EH Bildu bigarren eta gero eta gertuago



AITOR MARÍN

Eusko Alderdi Jeltzaleak eutsi zion apirilaren 21ean duela lau urte lortutako garaipenari Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Zorrotzan. Alderdi guztiek (oraingoa bananduta aurkeztu den Elkarrekin Podemos zena izan ezik) bozetan gora egin dute, 2020ko hauteskundeak pandemia garaian egin zirelako, eta parte hartzea oso eskasa izan zelako (%41). Horrek asko baldintzatzen du duela lau urteko emaitzekiko konparaketa.

EAJ irabazle argia bada ere, eta 200 boto inguru gehiago lortu arren, duela lau urte baino %3 boto gutxiago izan dute jeltzaleek. Aldiz, bigarren indarrari eutsi dion EH Bilduren gorakada oso nabarmena da. 400 boto

gehiago lortu dituzte subiranistek aurtan (5 puntuko igoera). 200 bototan murriztu du aldea EH Bilduk, eta lehen indarretik 424ra gelditu da.

Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularraren igoerak parekoak izan arren bozkei dagokionez (183 eta 177 hurrenez hurren), portzentualki 0,4 egiten dute gora sozialistek eta ia %3 popularrek.

Bukatzeko, bananduta aurkeztea garesti atera zaio ezker konfederalari. Ez Sumarrek, ez Ahal Duguk, ezin izan dute ere duela lau urte elkarrekin atera zuten erdira heldu, nahiz eta hasieran aipatu bezala, parte hartzeak nabarmen egin gora.

## Clown Zorrotza jaialdi berri bat hartuko du Azoka parkeak



ZORROTZ MORROTZ

Clown Zorrotza jaialdiak nazioarteko konpainiak izango ditu aurten ere. Jaialdia maiatzaren 31n irekiko dute Catalunyako bi konpainiek: *Teatro sobre ruedas* taularatuko den lehena izango da, poesia, musika, eta umorea uztartzen dituen “*Ambicions*” lana aurkezteko. Ondoren, Cris Clown, erritmo biziko ikuskizun hunkigarri eta benetan barregarria den “*Home*” antzeztuko du.

Ekainaren 1ean, larunbatean, hiru izango dira Azoka parkeko oholtzara aterako diren konpainiak. Lehenengoak izango dira Goitibera Antzerkia euskaldunak, “*Eraitsi S.L.*” antzeztuko dutenak. Anna Confettiren txanda izango da hurrengoa. Adin guztietako jendea maitemintzea agintzen duen “*A la fresca*” antzeztuko du Catalunyako konpainia horrek. Bukatzeko, arratsaldeko 20etan, Colette Gomette (Frantzia) eta Anna De Lirium (Austria) artista handiek osatzen duten bikoteak itxiko du jaialdia “*THE ONE & The one*” obrarekin

## Olabeagarako bidegorria blokeatzen duen luizia kentzeko lanak onartu ditu Udalak

ZORROTZ MORROTZ

Bi urte baino gehiago igaro dira 2021eko abendutik, Zorrotza eta Olabeaga arteko bidegorria blokeatu zenetik, eta, azkenean, martxoaren hasieran, Bilboko Udalak erori zen ezponda egonkortzeko obrak onartu ditu. Obrek 400 mila euro inguruko aurrekontua dute, eta behin esleitu ondoren, hasten direnetik bi hilabeteko epean amaituta egotea aurreikusten da.

Luiziaren zergatia jakiteko eta obra berriari behar bezala ekiteko asmoz, azterlanak egiteko eskatu zizkion Udalak hainbat ingeniaritza estudiori. Adituak emandako emaitzak ezagutu ondoren, ezpondaren gainazala babesteko eta finkatzeko elementu berri bat egitea erabaki da. Adituen arabera, jardueira hau nahikoa izango da etorkizunean lur horien egonkortasuna bermatzeko.

## Alazne Gogoratz Memoriala maiatzean itzuliko da Zorrotzara

ZORROTZ MORROTZ

Maiatzaren 18an ezinbesteko hitzordua du auzoan dantza gustuko duen edonork. Aurteko urteetan bezala *Alazne Gogoratz Memoriala* Kiroldegiko Hockey Pistan burutuko da *MDV dantzaren* gidaritzapean, Zorrotzako hainbat eragileren laguntzarekin. Sarrrerak 3 euroren truke lor daitezke Lápices liburutegian eta Nuria lurrindegian.

Gainera, aste berean “Laguntasuna” merkatarien elkartearen eskutik, beste bi kultur ekitaldi eskainiko dira Udaltegiko areto nagusian: hilaren 16an, Maria Solinisek (piano-jolea) eta Mentxu Díezek (aurkezlea) “*Emakumeen Taupadak: Nocturnas*” musika-ikuskizuna eskainiko digute; hurrengo egunean “*¡La Tarara!*” antzerki-lana ikusi ahal izango da, *Zenbatu Teatro Comunitarioren* eskutik. Ekitaldi guztiak 19:00etan hasiko dira.

# Onartu da FEVE trenbideak lurperatzeko ingurumen-inpaktuaren azterketa

Trenbideak lurperatzeko prozesua aurrera doa, baina kasurik onenean, 2028ra arte ez da amaituta egongo

AITOR MARÍN

Ingurumen-agintarien oniritziarekin, lurperaketak beste aurrerapauso bat eman du. Obrak hasi ahal izateko, proiektuaren erredakzioari ekin behar zaio orain. Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren ingurumen-inpaktuaren azterketak, gainera, bere garaian ADIFen informazio-azterlanari hainbat elkartek eta EH Bilduk aurkeztu zizkieten alegazioak jasotzen ditu.

Beraz, urrats horren ondoren, Garraio Ministerioak dagoeneko eraikuntza-proiektuaren idazketa lizitaziora aterata dezake. Behin hori gauzaturik, ingeniartza lan batek zehaztuko du trazaduraren diseinua eta obra-plana. Ostean, eraikuntza-lanak lehiaketa publiko bidez enkargatu behar dira geltokia eta lurperatzea egiteko. Eta horrek noizko joko du? Epe ofizialik ez dagoen arren, obrek hiru urte

inguru iraungo dutela uste da, eta ingeniartza lanak hamabi hilabete inguru.

Onartutako alternatibak trenbidearen traza-duraren kilometro eta erdi lurperatzea aurreikusten du, eta geltokiari bi sarrera-kanoi eta igogailu-zutabe bat emango dizkio, Metro Bilbaokoen antzerakoak. Beraz, geltoki berria Metro Bilbaoko etorkizunerako proiektatu den 4. linearekin lotu ahal izango da.

Hala ere, zailtasun berri bati aurre egin behar zaio: Ministerioak eta Udalak hitzarmena eguneratu beharko dute; izan ere, merkantzia-trenen eta bidaiarien joan-etorriak bereizteko saihasbide bat eraikitzeak, eraikuntzako kostuak handitzearekin eta inflazioarekin batera, hasiera batean aurreikusitako aurrekontua 55 milioi eurotik 115 milioi eurora garestitzea eragin du.

**SAZ**  
OKINDEGIAK

**Zorrotzako  
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34  
Tfno. 94 441 09 71  
Zorrotza - 48013 BILBO

**MADNESS KAFETEGIA**  
Elena eta Javier  
Zalbidea estrada, 5 - atzea  
**ZORROTZA**  
48013 BILBO

**MADNESS**

Tel. 94 441 62 75

**ESKaintza  
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOIA +  
KRISTALAK** GOI-  
GAMAKOAK

**265€**

Sustapena indarrean ++-4,00 esferako eta  
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako  
RPS: 213/18

**ibarretaluxury**  
OPTICA





## // Herri latinoekin alderatuta hemengo gizartea tristeagoa da //

### GLORIA MARÍA AMADOR

Jaioterria: Managua (Nicaragua)

Noiztik hemen: 2010.etik

Adina: 41 urte

Lanbidea: Garbitzailea

Bizmodu hobe baten bila eta semeari etorkizun hobe emateko asmoz Nikaraguako egoera politiko "jasanezina"tik ihes heldu zen Gloria María 2010ean gurera. Hemengo eguraldia, garbitasuna eta zerbitzuak gustuko ditu, eta lanean burubelarri badabil ere, lasai bizi dela dio.

TESTUA: AINARA GARCÍA | ARGAZKIAK: AITOR MARÍN

#### Nolatan edo zergaitik etorri zinen? Eta zergatik gelditu zara hemen?

Etorkin gehienak bezala, bizimodu hobe baten bila heldu nintzen Bilbora. Une hartan nire semea jaio gabe zegoen eta nire senar-arekin batera bere etorkizunean pentsatzean, argi geneukan Nikaraguako egoera politikoa jasanezina zela eta ahalik eta lasterren ospa egin behar genuela. Unibertsitate-ikasketak bukatu berriak nituen baina haurdunaldia-ekin dena aldatu zen. Nire senarra heldu zen aurretik, eta geroago semearekin batera etorri nintzen ni.

#### Gogorra egin zitzaizun inguru, lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Familia eta lagunak atzean uztea gogorra da beti. Hala ere, ezagutzen nindoa heinean asko gustatu zitzaidan eta moldatzea erraza egin zitzaidan. Kaletik ibiltzea zirraragarria zen: dena berria, ezberdina...

#### Zer da hona heltzean gehien harritu zintuena?

Gauza ugari, segurtasuna, kaleko garbitasuna, argiteria, hezkuntza... baina garraio publikoaren sarea batez ere. Nire herrian au-

tobusen bat eta taxiak baino ez daude, oso garestiak eta zerbitzu txarrekoak. Aipatzekoa da bezeroarekiko tratuan dagoen aldea, nire herriko txoferrak oso zakarrak izaten baitira.

#### Oso ezberdina zen jatorriko bizimodua gurearekin alderatuta?

Hemen hiri-bizitza da nolabait, jende pila, bakoitza bere kabuz doana, gainezka dauden eraikin altuak... Managuan sakabanatutako etxetxo familiarak daude, bakoitzak bere espazio eta patioa dauka, animaliak edo ortu txikiak izateko eremua. Ingurukoekin bizitzeko edo harremanak izateko modua ere ezberdina da: hemen bakoitzak bere familia edo lagun gutxi batzuekin egiten du bizitza bere etxean edo lanean sartuta. Managuan berriz komunitate-bizitza egiten da, elkarri laguntzen diogu, edonoiz etxera heldu daiteke edonor eta bertan bazkaltzera gelditu, etxeko atera aulkiak atera eta momentuan batu direnekin tertuliak sortu daitezke edonoiz... Oro har, gizarte honi tristeagoa deritzot herri latinoekin alderatuta. Bestalde, hemengo eguraldia gustuko dut, gehiegizko beroa ez dudalako batere gustuko. Eta hemengo janaria gustuko badut ere, nire jatorriko gastronomía faltan dut.

**“Euskaraz hitz egiten entzuten dudanean, adi egoten naiz, ulertu ez arren. Bere sonoritateari ederra deritzot, eta nire inguruan euskaraz hitz egiten dutenekiko inbidia modukoa sentitzen dut**



### **Zein da zure lanbidea?**

Nazioarteko harremanetan unibetsitate-ikas-  
ketak egin nituen, baina segidan izandako  
haurdunaldia eta hona etortzeko bidaiaren  
ostean, ez nuen inoiz horretan jardun. Garbi-  
keta eta pertsona nagusien zainketekin zeri-  
kusia duten lanak izan ditut.

### **Zelan moldatzen zara euskaraz?**

Bilbora heldu arte ez nekien ezta existitzen  
zenik ere... Umea eskolan hastearekin batera,  
horrek zeukan garrantzia ez ohartu nintzen  
berehala. Euskaraz hitz egiten entzuten du-  
danean, adi egoten naiz, ulertu ez arren. Bere  
sonoritatea oso gustukoa dut, ederra iru-  
ditzen zait, eta nire inguruan euskaraz hitz  
egiten dutenekiko inbidia modukoa sentitzen  
dut... Hitz gutxi batzuk ezagutu era erabiltzen  
ditut, baina ikasteari oso zaila deritzot, se-  
meari eskolako etxeko lanekin lagundu ezin  
izateak atsekabetzen nauen arren.

### **Zer da Zorrotzan gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?**

Hemengo kaleak eta parkeak garbi eta zain-  
duta ikustea. Horiek ondo argizatuta egotea  
ere asko gustatzen zait. Gutxiena? Bada,  
lurperatu gabe dagoen trenbidearen afera

konpondu beharko dela uste dut, denbora  
handia galtzea eta izugarrizko segurtasun  
gabeziak eragiten dituelako. Eta gidariek ze-  
brabideak hobeto ikusteko sistema berria  
beharko litzateke, batez ere Zazpi Landan, ia  
ez baitira ikusten.

### **Auzoko ekintzetan edo taldeetan parte hartzen duzu?**

Oro har ezetz esango nuke. Auzoko berriak  
eta oharrak iragartzen dituen auzoko face-  
book taldeari jarraitzen diot eta umea esko-  
lan zegoenean Guraso Elkartean nengoen  
baina ezer antolatu gabe. Oso lotsatia naizen  
arren, orain dela gutxi Auzokan nazioarteko  
sukaldaritza tailerrean parte hartu nuen, eta  
bikain pasatu genuen.

### **Zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?**

Nahiz eta asko maite ditugun familia eta la-  
gunak bertan egon, bisitan joatea iada gero  
eta zailagoa egiten zait, diru kontuaz aparte,  
bertako egoera ez zaidalako batere gusta-  
tzen. Gauzak aldatu daitezke baina oraingoz  
ez dugu bizitokia aldatzeko asmorik. Nahia-  
go dut hemen buru belarri lan eginda bizitza  
lasaia izan, jaioterrira bueltatu baino.



# Tipi-tapa, tipi-tapa, Zorrotza korrika!

2022ko Korrika, pandemiaren ondoko lehena, ikusgarria eta hunkigarria izan bazen, aurtengoa ez da makalagoa izan, argazkiek erakusten dutenez. Oso berri ona da zorrotzarrok behin eta berri Korrikari erakusten diogun babesa. Harro herri, Zorrotza!



TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ. ARGAZKIAK: AEK - AITOR MARÍN

Aurtengo Korrika, hogeita hirugarrena, martxoaren 14tik 24ra ibili da Euskal Herrian zehar; Irundik hasi eta Baionan bukatuta. Zorrotzatik, berriz, hilaren 21ean igaro zen, ostegun iluntzean. Berriz ere, auzokideen parte hartzea oso zabala izan da, Korrikan ez ezik, haren aurretik ere.

Ohi denez, aurreko asteburuan Korrika Kulturala antolatu zen, auzoko elkarteetan lankidetzaz. Kirikoketa ikuskizuna, Askabideren eskutik. Herri Kirolak, Gure Lurrak antolaturik. Herri bazkaria, AEKK loturik. Erromeria, Ibai-Arte dantza-taldearen eskutik. Eta kantu-poteoa, Txinbotarrak konpartsak lagundurik.

Korrika egunean bertan, Zorrotzako ikasleek kaleak hartu zituzten Korrika Txikian. Zazpi Landa eskolan hasi, Fray Juan eskolatik pasatu eta Institutuan bukatu zuten, koreografia bateratu eta guzti. Arratsaldean, berriz, haurrentzako tailerrak eta txokolate jana antolatu zuen Zazpi Landa eskolako Guraso Elkarteak. Jai Batzordearekin batera, ume eta helduak Korrikaren zain zeuden bitartean. Korrika atzerape-narekin sartu zen Zorrotzara, eta ziztu bizian zeharkatu zituen gure kaleak, jendetzagatik ohikoak diren erritmo aldaketak gorabehera. Zorrotzarrok lekukoa Basurturi hartu eta Burtzeñari laga genion, Barakaldoko bidea hartu zuelarik.





**ZORROTZA F.C.**  
kirolarekin,  
auzoarekin eta  
euskararen alde!

**Jai-Alai**  
kafetegia



Abaro estrata 12  
94 490 12 59



**Taramona**

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefona: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefona: 94 442 17 12

**CRISTINA ÁLVAREZ:**

Irrati-esataria eta

La Klandestina taldeko abeslaria

# **// Irrati egiteak harrapatu egiten zaitu //**

Cristina Álvarez portugaletetarra da jaiotzez, baina Zorrotzan bizi da duela ia hogeit hamar urtetik hona, gutxi gorabehera irratiari eman dituen berberak. Pasio hori lanbide bihurtu da, "irratia egiten hasten zarenean irtetea oso zaila baita, harrapatzen zaituen zerbait delako". Hainbat irrati-katetan lan egin ondoren, duela bi hilabetetik Radio7 irrati goizeko magazina gidatzen du. Berarekin hitz egin dugu irratiaz, eta bere beste pasioaz: musikaz. Izan ere, *La Klandestina* taldeko abeslaria ere bada. TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARÍN





**“Radio7n lan egiteko gogoa nuen, eta irratia nire profila zuen pertsona bat behar zuen; beraz, dena primeran ateratzen**

#### **Noiztik zabilta irrartian lanean?**

Hit Radion hasi nintzen, Madrilen goiburua eta Estatu osoan sakabanatutako irratia zituen kate batean. Horietako bat Portugaleten zegoen, bizi nintzen herrian, ni portugaletarra bainaiz. Karrera amaitu berria nuen eta curriculumak botatzen hasi nintzen hainbat lekutan, itxaropen handirik gabe. Hortik deitu zidaten, eta hor hasi nintzen.

#### **Irratia kazetaritzan aritzeko irteera izan zen ala irratiesataria zara bokazioz?**

Egia esan, nire benetako bokazioa farandulea zela uste dut, eta kazetaritza ikasi nuen horri guztiari irteera emateko, kar, kar!... Egia esan, irratia izan zen une jakin bateko lehen aukera. Baina egia da irratia harrapatu egiten duela, eta behin barruan, ezin da irten.

#### **Otsailetik, Radio7ren goizeko magazineko esataria zara. Gustura? Nola heldu zitzaizun aukera hau?**

Egia esan, beti nahi izan nuen lana da. Irrati estilo hau gustatzen zait, lotsagabea, hurbila, (ez bakarrik irratia Lutxanan dagoelako, kar, kar...) Eta Monederok erretiroa hartuko zuela jakin nuenean, irratiko kide batekin hitz egin nuen. Radio7n lan egiteko gogoa nuen, eta irratia nire profila zuen pertsona bat behar zuen; beraz, dena primeran ateratzen.

#### **40 urtez irratia ren goizeko ahotsa izan da Miguel Ángel Monedero. Esatari oso berezi bere estiloagatik, eta entzuleek oso maiztatua. Bera ordezkatzeko erronka ez zen erraza, ezta?**

Ez, baina ez dut horretan asko pentsatu, egia esan. Monedero duela urte askotatik ezagutzen dut, berezitasun ordezkaezinak dituen kide eta laguna da. Estilo desberdinak ditugu, eta, beraz, ez dago konparaziorako aukerarik.

#### **Gaur egungo lanera iritsi aurretik, Onda Vascan ere izan zinen. Hala da?**

Bai. 2017ko udaz geroztik, ia urtero egin dut lan Onda Vascan, bajak edota ordezkapenak egiten, edo nirekin kontatu nahi izan duten edozein gauzatan. Eta lanik gabe egon naizenez, irratia rekiko lotura zuten gauzak egin ditut etxean, irratia xumeentzako edo ekoiztetxeentzako kuñak grabatzen, adibidez.

#### **Gainera, iragarki eta irratirako eduki askoren ahotsa zara. Irrati-ahotsa jaio ala egin egiten da?**

Ez dut lokuzioa ikasi, baina egia da ez dudala hasi nintzen unean neukan ahots bera... Uste dut denborarekin, lanbide guztietan bezala, eguneroko lanak hobetzen gaituela.





Cristina La Klandestina taldeko kideekin taldearen entsegu batean.

### **Hainbeste urteko ibilbidean bizipen ugari izango dituzu, baina zerbait nabarmendu beharko bazenu, zein izango litzateke?**

Bada, jende zoragarri asko elkarrizketatzeko eta ezagutzeko aukera izan dut, eta asko ikasgarazi didate. Nire bizitzan ekarpen handia egin didan jende anonimoa, eta ospetsua ere bai. Azken horien artean: Guillermo Toledo, Alberto San Juan, Shakira, Pablo Motos, El Canto del Loco...

### **Telebistan edo prentsa idatzian lan egin duzu edo lan egin nahiko zenuke?**

Zerbait egin dut ikasten ari nintzela... Besteak beste, karrerako azken urteko praktikak, telebistan, Tele7-n. Hilabete batzuk eman nituen han. Eta orain irratian egiten dudana lanarekin paraleloa den ikus-entzunezko proiektu batean ere sartuta nago. Euskal Herriko ibaien iturburuei buruzko dokumentalak hain zuzen.

### **Dokumental horien aurkezlea zara. Konta iezaguzu horretaz gehiago.**

RitxarGP ikus-entzunezko ekoizleak Euskal Herriko ibaien iturburuei buruzko edukiak egitea zuen helburu. kontaktu komun baten bidez konektatu eta proiektuarekin bat egitea proposatu zidanean, onartu egin nuen. Eta elkarrizketak egiteaz gain eta proiektu honetarako ibai-ertzetan kapituluak filmatzeaz gain, jende eta leku ikusgarriak ezagutzen ari naiz eta naturan oso lan atsegina egiten ari naiz. Proiektuari berari dagokionez, webgune bat dugu, nacederos.eus, eta, bertan, online plataforma bat jartzen dugu jendearen eskura,

hainbat kapitulu, blog bat eta podcastak argitaratuta. Lehen denboraldia, esan dudana bezala, Nerbioi ibaiari buruzkoa da, eta Itziar Ituñorekin hitz egin dugu, adibidez. Proiektu honen amabitxi modukoa izan da Itziar eta babes handia eman digu. Basauriko ibaiari buruzko oroitzapenak kontatzen ditugu Ituñok, eta ibaian gora jarraituta, elkarrizketa interesgarri eta irudi eder gehiagorekin osatzen da kapitulua, Nerbioi ibaiaren iturburura iritsi arte. Lehenengo denboraldia argitaratu berri dugu, eta bigarrena grabatzen ari gara, Isoria ibaiari buruzkoa.

### **Musikan ere aritzen zara. La Klandestina orkestrako abeslaria zara. Auzokan entseatzten duen berbena talde bat da, eta behin baino gehiagotan Zorrotzako jaietan aritu zarete. Noiztik zaude La Klandestinan?**

Abestea betidanik egin nahi nuen baina egitera ausartzen ez nintzen zerbait izan zen. Nire anaia musikariak dira, eta egun batean entseatzten duten lokaletan emakumezko abeslari baten bila zebilen talde baten kartela zegoela esan zidaten. Orduan animatu nintzen. Eta dagoeneko, zazpi urte daramatzagu Zorrotzako jaietan, tabernetan eta hainbat lekutan... abesten. Udako denboraldian jarduera handia dugu. Eta "jarduera" diot, hau ez baita lan bat. Musika-elkarte bat gara. Zerbitzu bat ematen dugu jendeak ondo pasatzeko asmoarekin, eta guk ere asko disfrutatzen dugu.

**Gutxi balitz bezala, beste proiektu musikal bat duzu, CosmicBears, pop eta rock ber-**

## **“Irratiko ereferenteen artean Angels Barceló eta Verónica Bretes izan ditut”**

ZM | 15

### **Erreferentea izan den esatari bat?**

Ohiko irratsaioez ari bagara, Angels Barceló aipatuko nuke. Eta musikari dagokionez, Veronica Bretesen oso zalea nintzen, pertsona zoragarria, eta, gainera, berarekin lan egiteko plazera izan dut. Baita Cristina García ere, Los 40n eta Cadena 100n ibilitakoa.

### **Gustatzen zaizun irratsaio bat?**

Onda Vascaren “Más que palabras” asko gustatzen zitzaidan ni egon nintzen garaian.

### **Nor elkarrizketatu nahiko zenuke?**

Bada, adibidez, El Gran Wyoming. Eta Rosario Flores.

### **Abesti bat irratian ipintzeko?**

Azkenaldian, izugarri gustatzen zaidan Chayanneren “Madre tierra” asko jartzten ari naiz.

### **Eta abesteko abesti bakarra aukeratu ahal izango bazenu?**

Ezin dut bat bakarra esan. Ehunka aipatuko nituzke... Metallicaren “Mama said” edo Rihannaren “Love on the brain”, bi esatearren.



### **tsioen duo bat, non abesteaz gain gitarra ere jotzen duzun...**

Bai. Duela urte asko hasi nintzen gitarra jotzen, pixka bat amorratuz, ez bainintzen kantatzera ausartzen... Utzi egin nuen, harik eta abesten hastean gitarrari euskarri gisa heldu nion arte. Nik ez dut konposatzen, bertsioak baino ez ditut egiten. Proiektu honetan gustuko ditugun abestien bertsio elektroakustikoak egiten ditugu. Nolanahi ere, honetan ere plazeratik eta gogobetetzen gaituelako jotzen dugu. Inola ere ez dirua irabazteagatik.

### **Denbora libre askorik ez duzu izango... Ba al duzu beste proiekturik buruan oraindik?**

Eguna ez zait ezertara iristen, bai... Baina bada buruan aspaldidanik daukadan proiektua. Auzoan irrati bat sortzea gustatuko litzaidake, esateko zerbait duen ororen ahots bihurtzeaz gain, hainbat kolektibori, ume eta gazteei, behartsuei, adinekoei... balioak emateko tresna izan litekeena. Denek izan dezatela irratia ezagutzeko aukera, eta irrati horrek balio dezala beren mezuak transmititzeko eta guztiona eta guztiontzat bihurtzeko. Izugarri litzateke hori aurrera eraman ahal izatea.



**B**  
BiziFitness

Zure zain gaituz  
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING  
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA  
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora



**RISKO**

**Burdindegia**

Zorrotza Kastrexana, 7  
Telefonoa: 94 441 64 86



**MESÓN  
LUNA**

*Etxeko berezitasuna; haragiak eta arrainak  
Itsaski-haztegi propioa  
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
www.mesonluna.es



## AGENDA

### Maiatzak 16, osteguna

19:00. Udaltegian.

**Musika emanaldia:**  
**MARÍA SOLINIS RIOBELLO** pianista  
eta **MENTXU DIEZ LINAZA:**  
"Emakumearen taupadak: Nocturnas"

### Maiatzak 17, ostirala

19:00 Udaltegian.

**Antzerkia:**  
**TEATRO COMUNITARIO ZENBATU:**  
"La Tarara"

### Maiatzak 18, larunbata

19:00 Kiroldegiko Hockey pistan.

**VI. MEMORIAL ALAZNE**  
**GOGORATUZ:**

Sarrera: 3 € (Lápices liburudendan eta  
Nuria lurrindegian)

### Maiatzak 31, ostirala

Azoka parkean.

**CLOWN ZORROTZA:**  
18:30: **TEATRO SOBRE RUEDAS:**  
"Ambicions"

19:30: **CRIS CLOWN: "Home"**



### Ekainak 1, larunbata

Azoka parkean.

**CLOWN ZORROTZA:**  
18:00: **GOITIBERA ANTZERKIA:**  
"Eraitsi S.L."

19:00: **ANNA CONFETTI: "A la fresca"**

19:00: **COLETTE GOMETTE eta**  
**ANNA DE LIRIUM:**  
"THE ONE & the one"

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko  
agendetan (aldizkarian eta webgunean)  
iragartzeko, [zm@zorrotzmorrotz.eus](mailto:zm@zorrotzmorrotz.eus)  
helbidera idatzi.



## Loak ezkutatzeko duena

Patxi Zubizarreta Dorronsoro.

Elkar. 2023. 216 orrialde.



Insomnioari buruzko erre-  
portaje bat balitz bezala has-  
ten da kontakizuna, baina han-  
dik laster detektibe-nobela bat  
bihurtzen da, bere misterio, ja-  
zarpen eta guzti, funtsean gure  
gizartearen diagnostiko gordina  
egiteko; horrekin batera, amo-  
diozko eleberri baten kutsua  
hartzten du, bere zita, sedukzio  
eta maite-jolasekin. Eta hori dena, tonu jostalari,  
arin bezain dotore batean idatzia. Patxi Zubizarre-  
tak komedia xarmagarri bat ondu du liburu honetan,  
ohi duen moduan ipuinez, hitz-jokoz, hango eta he-  
mengo erreferentziaz josiz bere narrazioa; Xerazade  
berri baten gisa, eskutik darama irakurlea paisaia  
elurtu batean, noizean behin ustekabe bat emanez.  
Hitz batez, kontalari ezin trebeago baten maisulana,  
Augustin Zubikarai sariaren merezient izandakoa.



## SKABIDEAN "Maite zenuen hiria"

(Txorimalo Records) 2023



Iazko sanferminetan,  
1978an jazotako sarraskia-  
ren 45. urtemugaren harira,  
bertakoa den Skabidean tal-  
deak kontzertu oso berezia  
eman zuen Konpainia pla-  
zan. Omenaldi haren emaitza  
bezala "Maite zenuen hiria"  
zuzeneko diskoa aurkeztu  
zuten duela hilabete batzuk.

Taldeak berak autoekoiztita, 25 lagun baino  
gehiago aritu ziren elkarlanean dena aurrera ateratzeko.  
Audioaren grabaketa eta nahasketari dagokienez,  
"errudunak" Kaki Arkarazo mitikoa eta bere semea  
Martxel izan ziren. Banda honen esparru naturala tau-  
lagaina denez, diskoan ederki islatuta gelditu da.

Audioaz gain, bideo formatuan ere erregistratuta  
utzi zuten kontzertu gogoangarria. Hiru kameraren  
laguntzaz eta plano desberdinak tartekatuz dinami-  
ka handia eman diete grabatutako irudiei. Ikusi nahi  
izanez gero, YouTubeko beraien kanalean ikusgai  
daukazue.

Beti esan izan ohi da talde baten bizitzan zuzen-  
eko diska aro baten amaiera dela. Skabidean-en  
kasuan arnasa hartu eta hurrengo lanaren presta-  
kuntzan murgiltzeko parada da, aurtien zuzenekoak  
ahal den heinean alboan utzi eta konposaketa-lanak  
burutzeko. Bitartean, play sakatu eta goza ezazue!.

IBAI BARRIOS





**PINTXOTAN**



## ***Kalabazina york urdaiazpikoarekin eta gazta**z** betea***

**Zailtasun maila:**

Erraza.

**Prezioa:** 1,70 euro.

**Osagaiak:** Kalabazina, york urdaiazpikoa, gazta, irina, arrautzak eta oliba olio.

Kalabazina xerra finetan moztzen da, urdaiazpikoa eta gazta kalabazin xerren erdian jartzen dira eta irin eta arrautzatan eztitzen dira.

Ondoren, ogi xerra baten gainean ipini eta listo. On egin!

## **TXINBO TABERNA**

**Ordutegia:**

Astelehenetik ostiralera:

07:00etatik 23:00etara

Larunbatetan: 08:00etatik

24:00etara

Igandeetan: 08:30etik

23:00etara

**Abaro estrata, 10**





**ROCKET  
TAVERN**

Plater konbinatuak,  
hanburgesak,  
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



**VÍA gráfica**

viagraficazorrotza@gmail.com

**Disenya**

**cafe**txinbo****

**Especialitateak:**  
Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Abaro estrata, 10  
Tel. 94 608 85 74



## Eretza (887 m.)

MANU COBO

Sasiburu mendilerroko gailurrik garaiena da, eta Triano edo Grumeran mendien multzo menditsuari dagokio. Kadagua ibaiaren ezkerrekoa gailentzen da mendilerro horretan, Burgosko Mena haranetik Ibaizabalen itxasadarraraino (Nerbioi). Bere silueta liraina da nagusi Enkarterriko ekialdean, eta Ganekogorta mendigunea bakarrik, Kadaguako haranaren beste aldean, ausartzen da gailurrean gailentzen. Beraz, gailur klasiko eta bereizgarria

da. Bertan, kareharri zuria azaleratzen da, baina ezin da gailur harritsu gisa sailkatu.

Hara heltzeko bidea aipatu dogun Sasiburuaren jarraipena da, Ganeroitz gailentzen, mendebaldeko jeitsiera hartu eta Saratxorako bidea hartute (kontuz, eskerraldera, ez jeitsi Kastañoserantz...), aurrera. Auzoa gailentzen eta gora, berantzeko errepeidea Zaramilora jeitsiko dogule... Suten aurkako ziurtagunea ikusiko dogu, gora egin, eta handik gixire iturri bat topatuko dogu. Artez gorantz, bidea topatuko dogu gailurrerarte.

Orain, eta jada giarrak ohitutak dekozuzala ikusite, zeharkaldi polit bet ahokatuko dotsuet. Garai ona egiteko udaberiko hasiera, hametik hie batera edo...

Auzotik atara Pagasarrira, Ganekora igo, handik Gailarragara, Sodupera (edo Zaldupen) jeitsi, errepeidea zeharkatu eta Eretzara igo (ibilbide ezagunena). Auzora jeisteko, Ganeroitzera, Sasiburu, Arroletza... Eta Agate Deunatik Kastrexanara. Sorgin zubie igaro eta auzora.

Goizeko zazpiretan ateratak, arrasteko iluntze baino lehen helduko gara. Ure eroan (gogoratu iturriek, Trin, Zaldupen, suten aurkako ziurtagunea, Arroletza pean...), jana, eta gogoak!!!!



Suten aurkako ziurtagunea

## TXOKO FEMINISTA



Indarkeria bikarioa genero-indarkeria mota bat da, zeinaren bidez genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak objektu gisa erabiltzen dira beren amei kalte eragiteko.

2004ko Genero Indarkeriaren Legeak jasotzen duenez, emakumea ez da bakarrik indarkeria mota horren biktima, baita haren seme-alabak ere, tratu txarrak ematen dituenak kalteak eragiteko erabiltzen baititu.

2021eko Haurren Babes Integralari buruzko Legeak neurri gehigarriak gehitzen ditu haur horiek babesteko.


Zoritxarrez, aurten errekor tristea gainditu da, apirilaren 10erako pasa den urte osoan baino haur gehiago hil baitituzte indarkeria bikarioaren bidez. 2013tik 2024ko apirilaren 10era, behin-behineko datuen arabera, aita biologikoek, gizon bikoteki-deek edo bikotekide ohiek 57 adingabe hil dituzte

IRATZE PÉREZ

## SALAKETA ARGAZKIA

### Sader-Profersaren lekualdaketak lehentasunezkoa izan behar du

Eusko Jaurlaritzak eta Profersak adierazi dute Profersaren erreakzio kimikoak ez zuela osasunean kalterik eragin airean diluitu zelako... Enpresak argitaratutako informazioaren arabera, egoera beti egon zen kontrolpean... Baina irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du, eta argazkia ikustea besterik ez dago ulertzeko herritarrak beldurra izatea gure etxeetatik hain gertu dauden bi enpresa horiekin gerta daitekeenari. Urte asko eman ditugu bete gabeko promesak entzuten eta pazientzia agortu zaigu. Premiazkoa da Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak Agaleusi eskatzea lehenbailehen aurki dezala Sader eta Profersa enpresentzako kokapen berria, hirigunetik urrun.



Argazkia: @saderprokanpora

**Lápicos**  
LIBURUDENDA

Untziola kalea, 8  
ZORROTZA

**LASTER** ⚡

Elektrizitatea  
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35  
LARRIALDIAK: 657 79 57 04  
[www.electricidadlaster.net](http://www.electricidadlaster.net)  
MENDIGAIN ETXALDEA  
ZORROTZA 48013

**FARMAKOTEGIA**  
**SUSANA**  
**URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza  
Tlfn. 94 441 61 46



# Scroll

O hikoia izaten da gaur egun burua lurrinduta ibiltzea. Lausoaldi batean gabilta atzera eta aurrera, uneoro arrastaka garamatzen estimuluen pean. Denboraren pisua gure gain eror dadin uzteko gaitasuna kamustu zaigula iruditzen zait. Edo bederen niri. Buruan milaka ideia eta bat ere ez, hego haize etengabe batek garuna lastzanduko balitzaiгу legez. Eta hego haize, zoro haize, badakizue. Mugikorra dagoeneko gorputz-adar bihurtuta, arretari eustea da egungo erronka nagusia. Ez dakit gure pertzepzio gaitasunean jadanik atzera ezinezko eraldaketarik gertatu ote den, ez dakit, ez dakit berandu ez ote gabiltzan. Millennialak garenok, are, boomerrak ere mugikorraren putzu sakon eta ilunean hondoratuta bagaude, nola ibiliko da ba sakelekoa eskuan jaio den belaunaldia... Ez nuke apokaliptikoegia jarri nahi, ezta gain-kritikan erori ere, baina kezkatzen nauen gaia da, aspalditik.

Nire buruarengan islatuta ikusten dut lehen-lehenik, ingurukoengan gero. Estimulu azkar eta laburren garaian bizi gara. Eta hori ematen



ASIER URKIZA

**“ Millennialak****garenok, are,****boomerrak ere****mugikorraren putzu****sakon eta ilunean****hondoratuta bagaude,****nola ibiliko da ba****sakelekoa eskuan****jaio den belaunaldia...****Kezkatzen nauen gaia****da, aspalditik**

dute Tik-tokek, Youtubek, Twitterrek eta Facebookek. Kontua, halere, ez da sare sozialak jo-puntua ezartzea, berez tresna erabilgarriak izan baitezkeen. Tarteka hori ere badira, bestalde. Baina ez dezagun ahaztu algoritmoetan, algoritmo errepikakor, ikaragarri sinple baina eraginkorretan oinarritutako multinazionalak direla aplikazio horiek, milioiak tonaka irabazten dituztenak jende saldoak scroll egin ahala. Asko eta asko, Tik-tok esaterako, eduki sexualizatuak eskaintzen dizkiete hamabi urteko umeei eta hauek munduko gauzarik

normalena bezala irensten dituzte. Eduki horiek zabaltzen diete pornoaren atea, inolako sexu heziketarik jaso aurretik. Eta jakina, arreta tartea ikaragarri murriztea dakar horrek guztiak, urtetan, egunean hainbat orduz bideo laburrak irensten egoteak eduki baduelako eraginik.

Zaila zaie, ondorioz, iritzi artikulua baten ideia nagusiari antzematea, poema baten irakurketak eskatzen duen egonarri eta patxada izatea, gai baten inguruko iritzi kritikoa garatzea. Baina, eremu akademikora ez mugatzeko, lagunarteko harremanetan pazientzia izatea ere bai, begiak ireki eta inguruari so egitea. Sistemaren antsietatea anplifikatzen dute gailuek, sosegua, oreka ia desagertzeraino. Izan ere, halako laino bat dugu buruan, pertzepzioa lausotu eta desitxuratzen duena. Nik ez diot aplikaziook eta ditzosozko mugikorra alde batera utzita jendarte osasuntsuago eta zoriontsuago batean biziko ginatekeenik, ezta mobila betiko baztertu behar dugunik ere. Pentsatzekoa da, ordea, reset orokor baten ideia. Lehen edan bezala, jadanik berandu izan daitekeelako auzia birbideratzeko. Gordina da hau guztia, baina horrelaxe daude gauzak.



# Poliedroak



ALAITZ  
ALDABALDE TREKU

**P**oliedroak gara. Emakumea, langilea, militantea, ama, alaba, ahizpa, laguna, maitalea, euskalduna, ekologista, feminista, internazionalista, ... Zenbat izaera izan ditzake gorputz bakarrak? Zenbat kontraesan gorde dezake horrelako egitura konplexu bakar batek bere baitan?

Kontua da duela zazpi urte Frankismoari lotutako ize-nak ezabatu eta emakumeoi zor zaigun ikusgarritasuna emateko ekimen baten baitan, Udalak Clara Campoamorri gure auzoko kale bat eskaini ziola, eta iazko urri-tik haren mural erraldoia ikus daitekeela bertan. On-doa, lelo hau: "Askatasuna erabiliz ikasten da". Eta egia-ri zor, ikusten dudana aldiro, barruak nahasten zaizkit.

Ikuspegi feministatik ezin zaio ukatu emakumeon alde egindako ekarpena; mi-resgarria da horrek ekarri zizkion sufrimendu eta mi-serien gainetik bereari eus-teko izan zuen aorea. Baina hori poliedroaren aurpegi bat baino ez da, hainbesteko distira daukana, non begira-tzen diotenak itsutu egiten dituen eta gainerako aldeak ikustea galarazten dien.

Izan ere, emakumeon esku-bideen defendatzaile nekae-zinak pulpitoa, zapaldu oro-ren askatasuna aldarrikatze-ko erabili ordez, Espainiaren nagusitasuna defendatzeko erabili zuen, besteak beste, euskaldunon aldarrikapen

“ *Ezin dut*

*feminista eta*

*euskaldun artean*

*aukeratu, izaera biek*

*osatzen binaute.*

*Beraz, ezin miretsi nire*

*izaeraren zati bat ukatu*

*eta desagerrarazten*

*saiatu den pertsona*

historikoak zein hizkuntza desagerrarazteko politikak bultzatuz. (Hori sinetsarazi nahi badigute ere, Euskal Herriaren asimilazio eta ani-kilazio prozesua ez baitzen Francorekin hasi).

Horrenbestez, nekez uler de-zaket emakume hau Euskal Herrian askatasunaren ikur-tzat hartzea, Estokolmo sin-dromeak jota ez bada behin-tzat. Ni neu ere beste polie-dro bat naizelako, alderdi asko dituen poliedroa, eta ezin nezake nire alderdieta-ko bat besteen gainetik jarri. Hau da, ezin dut feminista eta euskaldun artean au-keratu, izaera biekosatzen binaute. Beraz, ezin mi-rets dezaket nire izaeraren zati garrantzitsu bat ukatu eta desagerrarazten saiatu den pertsona. Askatasuna ere poliedrikoa delako. Eta emakume askerik gabe herri librerik ez dagoen moduan, emakumeak ezin garelako

libre izan gure herria, gure kultura, gure identitatea eta gure hizkuntza ukatzen diz-kiguten bitartean.

Horri gehitu behar zaio euskal herritar askok Espai-niara begira bizitzeko duten joerak sorrazten didan ezinegona eta kezka, mun-dua Espainian hasi eta bu-katuko balitz bezala, haien historia geure eginez eta geureari bizkarra emanez. Bizenta Mogel, Mari-Luisa Erdocio, Julia Fernandez, Maurizia Aldeiturriaga, Elbi-ra Zipitria, Maialen Lujanbio, Beatrice Molle ... Emakume borrokalari eder askok osa-tzen dute Euskal Herriaren historia eta geografia, bakoit-zak bere lubakian, euska-ratik eta euskaraz, gizonen neurriara egindako gizartean arrakalak sortuz ondorengo emakumeoi bidea ireki di-gutenak.

Auzoko kaleetako plaken eta hormen bidez gizarte parekide eta justuago bat eraikitzea posible egin du-ten emakumeak goraiapatzea inizatiba ederra da benetan, baina aurre egin diezaioGUN behingoz Estokolmo sindro-meari, aldarrika dezagun geurea. Zorionez, berton emakume zoragarriak ditu-gu, apaltasun, ausardia eta erabakitasunez, Euskal He-rriko gizarte poliedrikoaren norabidea argitu eta argitzen dutanak. Bete ditzagun gure kaleak haien izen eta irudie-kin, hurrengo belaunaldien eredu izan daitezen, Euskal Herriaren poliedroak bere argi propioz, inori itzal egin barik baina inoren itzaletan egon gabe, indar handiz dir-dir egin dezan.



**Terese**

Plan B-ren bat badaukate, baliteke. Baina egia esan, ez nago batere ziur oraingoan izango den ala ez.



**Jon**

Berriro ere gezurretan ari direla uste dut, beste hainbatetan gertatu den bezala.

IRATZE PÉREZ


**Sader lantegiaren lekualdaketa.**

Luze jota 2028an gauzatzea adostu dela argitaratu dute hainbat komunikabidek... Baietz oraingoan?



**Ander**

Urte asko daramatzate kontu berdinarekin eta jada ez dut ezer sinesten. Gainera, azkenaldian erreformak egin dituzte, beraz badirudi luzerako geratuko direla.



**Jon Ander**

4 urte falta dira... Itxaropena behintzat ez dugu galdu behar.



**Garbiñe**

Ez dakit zenbatetan esan duten berdina eta oraindik ez da gertatu. Beraz, ezkor naiz, eta oraingoan berdin gertatuko dela uste dut.

**ehbildu**  
**ERABAKI\***  
**ALDAKETA**



**ASKABIDE**  
**kultur elkartea**  
**zorrotza**





# iKasi Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,  
ikastetxe publikoetan eta  
Zorrotzatik irten gabe**



**CEIP ZAZPI LANA ZORROZGOTTI ILIHI**  
Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75  
📧 sietecampas@gmail.com



**CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILIHI**  
Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21  
📧 014159aa@hezkuntza.net



**ZORROTZA BH**  
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 428 01 36  
📠 94 428 01 37  
📧 015078aa@hezkuntza.net  
[www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net](http://www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net)



**MDV**  
Mikel del Valle

# VI. MEMORIAL Alazne GOGORATUZ

**MAIATZAK 18. 19:00etan  
ZORROTZAko HOCKEY PISTA**  
**Prezioa: 3€**

**Sarrerak:**  
Nuria Iurrindegia eta Lápices liburudenda

Ballet Klasikoa  
Euskal Dantza  
Dantza Garaikidea  
Break Dance  
Flamenco  
Musika









# AZOKA PARKEA

## PARQUE DEL FERIA

MAIATZAK 31 MAYO

**BARIKUA / VIERNES**

**18:30** TEATRO SOBRE RUEDAS  
"AMBICIONS"

**19:30** CRIS CLOWN  
"HOME"

EKAINAK 1 JUNIO

**ZAPATUA / SÁBADO**

**18:00** GOITIBERA ANTZERKIA  
"ERAITSI S.L."

**19:00** CÍA. ANNA CONFETTI  
"A LA FRESCA"

**20:00** COLETTE GOMETTE Y ANNA DE LIRIUM  
"THE ONE & THE ONE"



# CLOWN ZORROITZA 2024

**KULTURA  
BARRUTIK**

**B**

**Bilbao**

kulturabarrutik.eus



KULTURA JASANGARRIA  
CULTURA SOSTENIBLE